# Euskararen egunean euskarari kantatu nahi?

Oiartzun, 2020'ko abenduak 3

IKUSI MENDIZALEAK....................................................................................2
EUSKARA, PLAZARA!....................................................................................3
AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA..............................................................4
EUSKERA, OI EUSKERA.............................................................................6
EGUN DA SANTIMAMIÑA............................................................................8
ARABAN BAGARE.......................................................................................10
EZ BEDI GALDU EUSKARA.......................................................................12
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ.................................................................14
GUK EUSKARAZ..........................................................................................16
BEHIN BETIKO.............................................................................................17
SAN SIMON ETA SAN JUDA......................................................................18
TXORIA TXORI.............................................................................................19
KONTRAPAS................................................................................................20

# IKUSI MENDIZALEAK

## Hitzak eta doinua: Sabin López de Gereño

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igo behar dugu.

Ez nekeak, ez da bide txarrak,
gora, gora, neska-mutilak, a, a, a!
Gu euskaldunak gara,
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean,
euskal lurren artean,
begiak zabaldurik,
bihotza erretan.

Hain ederra, hain polita da ta,
gora, gora Euskal Herria, a, a, a,
Gu euskaldunak gara…

**AURKIBIDERA**

# EUSKARA, PLAZARA!

## Hitzak: Telesforo Monzon
## Doinua: Ezezaguna.

Plazara, euskara plazara!
Euskaldun irakasle
eta ikasleok, dantzara!
Plazara, dantzara!
Geure herriaren geroa baikara!

Bai, arreba ta anai...
Guk ere herri bat izan nahi!
Geure lurrak laiatuz eta irauliz,
udaberriko emaitzaren zai!
Herri jakintza nahi dugu,
eta jakintza herriarentzat nahi!

Plazara, Euskara, plazara!...

Ez, erderarik ez!
Euskadin sortu ginenez!
Denok euskara bakar bat nahi dugu!
Bizi giro ta jakintza bidez,
mundu berri bat nahi dugu,
herri bakoitzak beretik emanez!

Plazara, euskara, plazara!...

**AURKIBIDERA**

# AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

## Hitzak eta doinua: Ziriako Andonegi

Aitorren hizkuntz zaharra
nahi degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu,
baldin gure zainetan
odolik badegu
euskaldunak euskeraz
hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra
euskera guria
inun ez det aurkitzen
beste bat hobia
usai goxodun hizkuntz
txukun ta argia,
biraorikan ez duan
hizketa garbia.

• • •

Gora euskera maitea
zoragarriena
euskaldunen artean
maitagarriena.
Munduan sortu zanik
hikuntzik zaharrena,
gora ta gora euskaldunak
eta gure euskara.

**AURKIBIDERA**

# EUSKERA, OI EUSKERA

## Hitzak eta doinua: Imanol Urbieta

Euskera oi euskera
sutan da gorderik,
mendez mende egoki
euskaldun gogoa. (bis)

Euskaldun jaio nintzan,
euskaldun hazi,
euskera hutsik amak
zidan erakutsi.
Euskera maite maite
zabiltz nekin beti,
euskera hilez gero
ez nuke nahi bizi (bis).

Euskera, oi euskera...

• • •

Euskera egunez eta,
euskera gauean,
zahar ta gazteok beti
aritu gaitean.
Guztiok mintza zagun
pozkiroz euskera,
bihotzetik esanaz
euskaldunak gera (bis).

**AURKIBIDERA**

# EGUN DA SANTIMAMIÑA

## Hitzak: Gabriel Aresti
## Doinua: Mikel Laboa

Egun da Santimamiña
benetan egun samiña.
Goiko zeruak gorde dezala
luzaro neure arima.

Esaten dizut egia,
hau ez da usategia,
erroi artean izan nintzaden,
benetan ausartegia.

Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra,
euskara salbo ikusi arte
ez dut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak,
argitzen dira belarrak.
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

● ● ●

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskal Herriak diotsa:
solomu luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak.
Esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak.

**AURKIBIDERA**

# ARABAN BAGARE

## Hitzak: Bittor Kapanaga
## Doinua: Gontzal Mendibil

Araban bagare,
Gipuzkun bagera,
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara (bis).
Baita ere Lapurdi ta Nafarra.

Guztiok gara euskaldun,
guztiok anaiak gara,
nahiz eta hitz desberdinez
bat bera dugu hizkera (bis).

Araban bagare...

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara,
euskara azkartzeko
oraintxe dugu aukera.

• • •

Bagare...
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.
Bagare...

**AURKIBIDERA**

# EZ BEDI GALDU EUSKARA

**Hitzak: Joxe Mari Iparragirre**
**Doinua: Gontzal Mendibil**

Gure euskera eder maitea
galtzen gaur degu ikusten,
euskaldun onak harritzeko da
nola ez diran lotsatzen!
Larramendirik, Astarloarik
ez da gehiago aipatzen...
Ez da hutsegin haundiagorik
ondo badegu pentsatzen.

Galdu dirade ohitura onak,
galdua dugu Euskera...
hola bagaude, ehun urte barru
galdu da gure izena!
Erro, Aizkibel ziran bezela
erakusterik gaur ez da.
Gure euskera ...ai! galtzen bada
gu... euskaldunak ez gera!

• • •

Nola isildu eta barkatu?
Etorkizunen Kondairak
arrazoiakin esango digu:
nun dira zuen ohiturak?
Damu dute bai... gaur euskaldunak
lotsa pixka bat dutenak,
aspaldi esan duten bezela
gizonik jakintsuenak.

Dala Parisen eta Londresen
jakintsu asko badira;
euskerazko liburu zaharren
ondoren ibiltzen dira...
Hor da Luziano, printzipe ernaia,
orain guretar deguna,
euskerazale bikain-bikaina,
jakintsuetan haundi dena.

Arren, ez bada galdu euskera,
nere anaia maiteak!
Galtzen badegu... galduak gera
gu eta gure semeak.
Beti euskeraz hitz egin, bada,
oro zahar ta gazteak
esan ez dedin denok gerala
euskaldun bihotz gabeak.

**AURKIBIDERA**

# EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

**Hitzak: Xabier Amuriza**
**Musika: Natxo de Felipe**

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia zerri azkara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

● ● ●

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik behar duguna.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

**AURKIBIDERA**

# GUK EUSKARAZ

**Hitzak: Gabriel Aresti**

**Musika: Josean Larrañaga, *URKO***

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen,
eta zuek denok ur gazi bat
atera zenuzten handík nekez.

Guk euskaraz,
zuk zergaitik ez?

Orain zuen birtutez, zuen indarrez,
euskara itsaso urdin eta zabal
bat izanen da eta guria da.

**AURKIBIDERA**

# BEHIN BETIKO

## Hitzak eta doinua: Imanol Urbieta

Behin betiko, behin betiko
sinple bezain tinko,
ez dugu etsiko!
Behin betiko, behin betiko
sinple bezain tinko,
EUSKARAZ ETA KITTO!

Etxean eta kalean
berdin-berdin jolasean,
eskolan, lanean,
tristuran eta pozean.
Dakitenek erabiliz,
ez dakitenek ikasiz,
herri bat osaturik
euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera,
martxan jarri da lege berria:
Euskaraz Euskal Herrian.

**AURKIBIDERA**

# SAN SIMON ETA SAN JUDA

## Hitzak eta doinua: Xabier Lete

San Simon eta San Juda
joan zen uda,
eta negua heldu da:

ez baletor hobe
bizi gara pobre
eremu latz honetan
ez gara hain onak benetan

ez dugu zaldirik
ez gara zaldunak
ez dugu abererik
ez gara aberatsak

euskara guk dugu
gu gara euskaldunak
euskara guk dugu
gu gara euskaldunak

**AURKIBIDERA**

# TXORIA TXORI

## Hitzak: Joxan Artze
## Doinua: Mikel Laboa

Hegoak ebaki banizkion,
neria izango zen,
ez zuen aldegingo.
Baiñan, horrela
ez zen gehiago txoria izango (bis)
eta nik...txoria nuen maite.

AURKIBIDERA

# KONTRAPAS

## Hitzak: Bernat Etxepare
## Musika: Xabier Lete

Garaziko herria
benedika dadila (bis).
Euskarari eman dio
behar zuen tornuia (bis).

Euskara, euskara,
jalgi hadi plazara! (bis).

Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien (bis).
Orai dute porogatu
engainatu zirela (bis).

Euskara, euskara,
jalgi hadi dantzara! (bis).

• • •

Bertzeak oro izan dira
bere goien gradora (bis).
Orai hura iganen da
bertze ororen gainera (bis).

Euskara, euskara,
jalgi hadi mundura! (bis).

Oraindaino egon bahaiz
inprimitu bagerik, (bis)
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik (bis).

Euskara, euskara,
jalgi hadi kanpora.
Euskara, euskara,
jalgi hadi plazara.
Euskara, euskara,
jalgi hadi dantzara.
Euskara, euskara,
habil mundu guzira.

**AURKIBIDERA**